## ZARAUZKO UDALA

*Iragarkia*

Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, Zarauzko emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal kontseiluaren erregelamenduaren testu osoa argitaratzen da. Udalbatzarrak 2009ko apirilaren 29an egindako osoko bilkuran onartua da.

Administrazio-bideari amaiera ematen dion erabaki honen aurka jarraian agertzen diren errekurtsoak aurkeztu ahal izango dira:

*Berraztertzeko errekurtsoa:* Aukerazkoa: Erabakia hartu duen organoari, hilabeteko epean, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Errekurtsoa aurkeztu eta hilabete igarota ebazpena jakinarazi ez bada, orduan errekurtsoa onartu ez dela ulertuko da. Edota, zuzenean,

*Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa:* Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita; edota, administrazioaren isilunearen ondorioz ezetsi bada, sei hilabeteko epean. Hori guztia, egoki iritzitako beste edozein errekurtso jartzeari utzi gabe.

*Aplikatzekoa den legeria:* Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua) 116. eta 117. artikuluetan; eta uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko Auzitarako Eskumena arautzen duena, 46. artikuluan xedatutakoa.

Zarautz, 2009ko uztailaren 6a.—Jon Urien Crespo, Alkatea.

(4668) (8877)

*Zarauzko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Kontseiluaren Erregelamendua.*

*1. artikulua. Izaera.*

1. Zarauzko emakumeen eta gizonen berdintasunerako udal kontseilua organo aholkularia, kontsultarakoa, informatzailea eta ekintzen sustatzailea eta behatzailea da, horien bidez emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna lortzeko eta emakumeen partaidetza bultzatzeko, udalerriko bizitza politikoan, kulturalean, ekonomikoan eta sozialean.

Udalaren gobernu-organoek aintzat hartuko dituzte kontseiluak egindako proposamenak eta hartutako erabakiak eta organo horiek erantzun arrazoitua eman beharko diete baztertzen edo aldatzen diren erabaki edo proposamen guztiei.

2. Erregelamendu honek eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenek arautuko dute kontseilua.

*2. artikulua. Kontseiluaren helburuak.*

Berdintasunerako kontseiluak oinarrizko helburu hauek izango ditu:

— Herritarren partaidetza eta bereziki Zarauzko emakumeena bultzatu udalerriko arlo politikoan, kulturalean, sozialean eta ekonomikoan, ordezkatzen dituzten elkarte eta erakundeen bidez.

— Emakumeen lanaren aitorpena bultzatu, bai aukera berdintasuna lortzeko, bai emakumeen eskubideak defendatzeko, eta bai gizarteko hainbat arlotan benetan parte hartzeko.

## AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

*Anuncio*

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70-2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica el texto íntegro del reglamento del consejo municipal para la igualdad de mujeres y hombres de Zarautz, cuya aprobación fue acordada por el Pleno de este Ayuntamiento en sesión celebrada el 29 de abril de 2009.

Contra el presente acuerdo, que pone fin a la vía administrativa, se podrán interponer los siguientes recursos:

*Recurso de reposicion:* Con carácter potestativo, ante el mismo órgano que ha dictado el acto, en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al de la presente publicación. El recurso se entenderá desestimado si transcurre un mes desde su interposición, sin que se notificara la resolución. O bien directamente,

*Recurso contencioso-administrativo:* Ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar del día siguiente al de la publicación, o seis meses en el caso de desestimación por silencio administra-tivo, todo ello sin perjuicio de que se pueda ejercitar cualquier otro recurso que se estime procedente.

*Legislación aplicable:* Artículos 116 y 117 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificados por la Ley 4/1999, de 13 de enero; y artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa.

Zarautz, a 6 de julio de 2009.—El Alcalde, Jon Urien Crespo.

(4668) (8877)

*Reglamento del Consejo Municipal para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Zarautz.*

*Artículo 1. Naturaleza.*

1. El consejo municipal para la igualdad de mujeres y hombres de Zarautz se constituye como un órgano asesor, consultivo, informativo, observador y promotor de acciones encaminadas a la consecución de la igualdad de oportunidades de mujeres y hombres y a impulsar la participación de las mujeres en los diferentes ámbitos de la vida política, cultural, económica y social del municipio.

Los órganos de gobierno del Ayuntamiento tomarán en consideración los acuerdos y propuestas del Consejo, y tendrán que dar una respuesta fundamentada a todos los acuerdos o propuestas que sean rechazadas o modificadas.

2. El Consejo se regirá por el presente Reglamento y las demás disposiciones que le sean de aplicación.

*Artículo 2. Objetivos del Consejo.*

El Consejo para la igualdad tendrá como objetivos fundamentales:

— Propiciar la participación ciudadana y especialmente de las mujeres de Zarautz en el ámbito político, cultural, social y económico del municipio, a través de las asociaciones y entidades a las que representen.

— Impulsar el reconocimiento al trabajo de las mujeres para la consecución de la igualdad de oportunidades, defender los derechos de éstas y promover su efectiva participación en los diferentes ámbitos de la sociedad.

— Emakumeen asoziazionismoa sustatu.

— Udal politikak eta zerbitzuak emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna berma dezaten behatu.

— Emakumeen eta gizonen partaidetzaren oreka kualitatibo eta kuantitatiboa bultzatu hainbat arlotan: Udal bizitzan, kulturan, politikan, gizartean, lanean, ekonomian, etab.

— Udaleko berdintasun politikari buruzko hausnarketarako eta iritziak elkartrukatzeko gune izatea.

— Zarauzko emakumeen beharrak identifikatzea.

— Politika eta mugimendu feministari buruzko hausnarketarako topaleku izatea.

*3. artikulua. Funtzioak.*

1. Aurreko artikuluan zerrendatutako helburuak betetzeko, kontseiluak ondorengo funtzioak beteko ditu:

— Organo aholkulari eta kontsultarako gisa, udal politika bideratzea eta kontrastatzea, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko.

— Aukera berdintasuneko plan orokorra egin eta garatu dadin bultzatu, horren betekizun mailaren jarraipena egin eta ebaluazioan parte hartu.

— Landu behar den gaiaren arabera, kontseiluan Udaleko beste departamentuetako teknikariek aholkulari gisa parte hartzea egokia izan daitekeen aztertu, eta behar izanez gero, partaidetza hori proposatu.

— Aukera berdintasunarekin lotutako gaietan, udalaren eta herritarren edo kolektiboen arteko bitartekari lanak egin, euren eskaerak, proposamenak eta iritzi ezberdinak jaso eta kudeatu.

2. Zarauzko Udalak beharrezko informazioa eta bitarteko egokiak jarriko ditu kontseiluaren funtzioak betetzeko eta behar den bezala funtzionatzeko.

3. Kontseiluaren zeregina txostenak, irizpenak, proposamenak eta eskaerak egitea izango da.

*4. artikulua. Kontseiluaren osaketa.*

Kontseiluko partaide izan daitezke hitzarekin eta botoarekin honakoak:

1. Berdintasun departamentuko zinegotzi arduraduna, edo bere ordez izendatzen duena, kontseiluko lehendakari lanetan.

2. Berdintasun departamentuko teknikaria, edo bere ordez izendatzen duena, kontseiluko idazkari lanetan.

3. Ondoren zerrendatutako elkarteak; elkarte bakoitzeko gehienez 2 ordezkari (titularra eta ordezkoa):

— Emakumeen elkarte edo erakundeak.

— Eskubide berdintasunen alde lan egiten duten elkarte edo erakundeak.

— Gizarte izaerako beste elkarteak.

— Auzo elkarteak.

Elkarte edo erakunde horiek guztiek honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Beren jarduketa eremua Zarautz izatea.

b) Emakumeen eta gizonen eskubide eta aukera berdintasunaren defentsan jarduerak egitea.

— Fomentar el asociacionismo de las mujeres.

— Velar por que las políticas y los servicios municipales garanticen la igualdad de oportunidades de mujeres y hombres.

— Fomentar el equilibrio cualitativo y cuantitativo de la participación de mujeres y hombres en los diversos ámbitos de la vida municipal, cultural, político, social, laboral, económico, etc.

— Ser un espacio de reflexión y puesta en común sobre las políticas de igualdad del Ayuntamiento.

— Identificar las necesidades de las mujeres de Zarautz.

— Ser un espacio para la reflexión sobre las políticas y el movimiento feminista.

*Artículo 3. Funciones.*

1. Para la consecución de los objetivos relacionados en el artículo anterior, el Consejo desarrollará las siguientes funciones:

— Orientar y contrastar como órgano consultivo y asesor la política municipal con el objetivo de conseguir la igualdad efectiva entre mujeres y hombres.

— Impulsar la elaboración y el desarrollo del Plan Municipal para la igualdad de oportunidades, realizar el seguimiento sobre su cumplimiento y participar en la evaluación del mismo.

— Estudiar la conveniencia y, en su caso proponer, en función de los temas a tratar la participación en el Consejo como asesores de los/las técnicos/as de otros departamentos del Ayuntamiento.

— Actúar de intermediario entre el Ayuntamiento y las ciudadanas y ciudadanos de Zarautz, asi como recibir y gestionar sus peticiones, propuestas y opiniones en todos aquellos temas relacionados con la igualdad de oportunidades.

2. El Ayuntamiento de Zarautz facilitará la información y los medios oportunos para el cumplimiento de las funciones del consejo y para su adecuado funcionamiento.

3. Las funciones del Consejo se ejercerán mediante la emisión de informes, dictámentes, propuestas y peticiones.

*Artículo 4. Composición del Consejo.*

Podrán ser componentes del Consejo para la igualdad con voz y voto:

1. Concejal/a responsable del departamento de igualdad, o bien persona en quien delegue, que ejercerá la presidencia del consejo.

2. La técnica del departamento de igualdad, o persona en quien delegue, que ejercerá la secretaría del consejo.

3. Las asociaciones que se referencian a continuación, con un máximo de 2 representantes (titular y sustituto/a) por asociación:

— Asociaciones u organizaciones de mujeres.

— Asociaciones u organizaciones que trabajen en favor de la igualdad de derechos.

— Otras asociaciones de carácter social.

— Asociaciones de vecinos/as.

Todas ellas deberán cumplir las siguientes condiciones:

a) Su ámbito de actuación será el municipio de Zarauz.

b) Desarrollar actividades en defensa de la igualdad de derechos y oportunidades de mujeres y hombres.

c) Erregelamendu honetan jasotako printzipio eta helburuak onartu eta horiekin konprometitzea.

d) Irabazi-asmorik ez izatea.

4. Udalerrian ordezkaritza duten sindikatuetako emakume edo berdintasun ataletako bi ordezkari (titularra eta ordezkoa) gehienez.

5. Banaka eta irabazi asmorik gabe berdintasunaren aldeko jarduerak egiten dituzten pertsonak, gaiarekin interes egonkorra dutela adierazten dutenak.

6. Kontseiluak beste pertsona edo erakunde batzuen lankidetza eduki ahal izango du, aholkulari gisa, hitzarekin baina botorik gabe bilkuretan parte hartzen dutenean.

*5. artikulua. Kontseiluan sartzea.*

1. Aurreko artikuluan aipatutako elkarte eta erakundeek kontseiluan sartzeko eskatu behar dute, lehendakariari zuzendutako idatzi baten bidez. Eskaerarekin batera ondorengo agiriak aurkeztu beharko dituzte:

— Parte hartzea eskatzeko inprimakia, ongi beteta.

— Elkarte edo erakundearen idatzia, bere ordezkaritza eskatzailearen eta ordezko pertsonaren esku uzten duela adierazten duena.

2. Parte hartu nahi duten banakako pertsonek ondorengo agiria aurkeztu beharko dute:

— Parte hartzea eskatzeko inprimakia, ongi beteta.

3. Pertsonen edo erakundeen datuak aldatzen badira, kontseiluko idazkaritzari jakinaraziko zaizkio, gertatzen direnetik hilabeteko (1) epean.

4. Kontseiluan parte hartu nahi duenak edozein momentuan egin dezake sartzeko eskaera.

*6. artikulua. Kontseiluko partaide izateari uztea.*

1. Kontseiluko kide izateari utziko zaio ondorengo arrazoiengatik:

— Bere borondatez.

— Elkartea edo erakundea desegin delako.

— 4. artikuluan eskatutako baldintzetako bat betetzen ez delako.

— Justifikaziorik gabe bileretara ez joateagatik (hiru aldiz jarraian edo bost txandatutan).

— Kontseiluko printzipioen aurkako jarrera eduki edo jarduerak egiteagatik, gainerako kide gehienen iritzirako.

— Erregelamendu hau behin eta berriz hausteagatik.

2. Kontseiluak hartuko du kide izateari uzteko erabakia, inplikatutako elkarte edo pertsonari entzun eta gero.

*7. artikulua. Kontseiluko organoak.*

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako kontseiluak ondorengo organoak izango ditu:

1. Lehendakaritza:

Kontseiluaren lehendakaritzak ondorengo funtzioak beteko ditu:

— Kontseilua publikoaren aurrean ordezkatu.

— Kontseiluaren bilkurak deitu eta horietan buru egin.

— Eztabaidak bideratu eta zuzendu.

c) Aceptar y comprometerse con los principios y objetivos recogidos en este reglamento.

d) No perseguir fines lucrativos.

4. Un máximo de dos representantes (titular y sustituto/a) de las secciones de mujer o de igualdad de los sindicatos con representación en el municipio.

5. Cualquier persona que de forma individual y sin fines lucrativos, desarrollen actividades en favor de la igualdad y manifiesten un interés estable por el tema.

6. El Consejo podrá contar con la participación de personas o entidades que, en calidad de asesoras, acudan a las sesiones con voz pero sin voto.

*Artículo 5. Incorporación al Consejo.*

1. Las organizaciones y entidades referenciadas en el artículo anterior deberán solicitar su incorporación al consejo mediante escrito dirigido a la presidencia, acompañado de la siguiente documentación:

— Impreso de solicitud de participación debidamente cumplimentado.

— Escrito de la asociación u organización en el que delega su representación en la persona solicitante y en la persona sustituta.

2. Las personas que deseen participar a título individual deberán aportar la siguiente documentación:

— Impreso de solicitud de participación debidamente cumplimentado.

3. Cualquier modificación de los datos de las personas o entidades deberá notificarse a la secretaría del Consejo en el plazo de un mes desde que se produzca.

4. Las personas interesadas en formar parte del Consejo de Igualdad podrán presentar su petición en cualquier momento.

*Artículo 6. Cese en la participación del Consejo.*

1. Se perderá la condición de miembro del Consejo por cualquiera de las siguientes causas:

— Voluntad propia.

— Disolución de la asociación u organización.

— Pérdida de alguno de las condiciones exigidas en el artículo 4.

— Falta reiterada de asistencia injustificada, tres veces consecutivas o cinco alternas.

— Por tener conductas o actividades contrarias a los principios del Consejo, apreciadas por la mayoría de los/las miembros.

— Por incumplimiento reiterado del presente reglamento.

2. El cese como miembro será acordado por el Consejo, tras haber dado audiencia a la asociación o persona implicada.

*Artículo 7. Órganos del Consejo.*

La Comisión para la igualdad de mujeres y hombres contará con los siguientes órganos:

1. La Presidencia:

La Presidencia del Consejo desempeñará las siguientes funciones:

— Representar públicamente al Consejo.

— Convocar y presidir las sesiones del Consejo.

— Canalizar y dirigir los debates.

— Kontseiluko kideek proposatuta, kontseiluan partaide berriak sartu edo partaideei baja eman.

— Bilkura bakoitzeko gai zerrenda egin.

— Bozketak erabaki, berdinketa kasuetan.

— Kontseiluak egindako proposamenak Udaleko Berdintasun batzordera eraman eta defendatu.

— Proposamenen garapenaren berri eman kontseiluari.

2. Idazkaritza:

Kontseiluko idazkaritzak ondorengo funtzioak beteko ditu:

— Bilkuretako deialdiak prestatu eta bidali.

— Bilkura guztietako aktak idatzi eta jaso.

— Kontseilukideei informazioa bidali.

3. Kontseiluko kideak:

Kontseiluan parte hartzeak esan nahi du:

— Araudia onartzen duela.

— Kontseiluko bileretan eztabaidatutako edukien berri emango diola bere elkarteari edo erakundeari.

— Erregelamenduan jasotako funtzioak eta helburuak beteko dituela.

— Bilkuretara joango dela.

— Bilkuretan erabakitako konpromisoak beteko dituela.

*8. artikulua. Kontseiluaren funtzionamendua.*

1. Kontseiluaren ohiko bilkurak hilean behin edo bi hiletik behin egingo dira, eta apartekoak lehendakaritzak edo kideen herenak horrela erabakitzen dutenean.

2. Lehendakaritzak deialdiak idatziz egingo ditu; ohiko bilkuren kasuan gutxienez hiru egun lehenago, eta apartekoen kasuan bi egun aurretik.

3. Kontseilua eratuta egoteko beharrezkoa izango da kideen erdia gehi bat bertaratzea.

4. Lehentasunez erabakiak denon adostasunarekin hartuko dira, eta hori ezinezkoa izanez gero, bertaratutakoen gehiengo soilez.

5. Bilkura bakoitzaren akta egingo da, eta bertan jasoko dira bilkurara bertaratutakoen izenak, hasierako ordua, bukaerakoa, erabakitako gaiak eta, kasuan kasu, bozketen emaitzak.

6. Lan batzordeak sortu ahal izango dira, baldin gehiengoaren iritzirako, gaiak aztertzeko beharrezkoak badira.

*9. artikulua. Arautegia.*

Erregelamendu honetan aurreikusi ez den orotarako, indarrean dagoen legedi aplikagarria hartuko da kontuan.

— Realizar a propuesta de los/las miembros del Consejo las incorporaciones y ceses al Consejo.

— Elaborar el orden del día de cada sesión.

— Dirimir las votaciones en caso de empate.

— Llevar y defender ante la Comisión de Igualdad del Ayuntamiento las propuestas realizadas por el Consejo.

— Informar al Consejo sobre el desarrollo de sus propuestas.

2. La secretaría.

La secretaría del Consejo desempeñará las siguientes funciones:

— Confeccionar y envíar las convocatorias de las sesiones.

— Redactar y levantar acta de todas las sesiones.

— Remitir la correspondiente información a los/las miembros del Consejo.

3. Miembros/as del consejo:

Su participación en el Consejo implica:

— Aceptación de la normativa

— Informar a su asociación u organización sobre los contenidos tratados en las sesiones del Consejo.

— Cumplir con las funciones y los objetivos recogidos en el reglamento.

— Asistir a las sesiones.

— Cumplir con los compromisos que se acuerden en las sesiones.

*Artículo 8. Funcionamiento del Consejo.*

1. El Consejo se reunirá en sesiones ordinarias una vez al mes o cada dos meses, y en sesiones extraordinarias cuando así lo acuerde la presidencia o bien un tercio de los/as miembros.

2. La presidencia efectuará las convocatorias por escrito, con al menos tres días de antelación para las sesiones ordinarias y dos días para las extraordinarias.

3. Para que el Consejo se constituya de manera válida será necesaria la presencia de la mitad más una de sus miembros.

4. Los acuerdos se adoptarán prioritariamente por consenso y, en caso de no ser posible, se adoptarán por la mayoría simple de los/las asistentes.

5. En cada sesión se recogerá el correspondiente acta, donde se anotarán las personas que hayan acudido a la sesión, la hora de comienzo y de finalización, los temas resueltos y, en su caso, los resultados de las votaciones.

6. Se podrán crear comisiones de trabajo en los casos en que a criterio de la mayoría de los/las miembros sea conveniente para el análisis de los temas.

*Artículo 9. Reglamentación.*

Para todo aquello que no sea previsto en el presente Reglamento, se tendrá en cuenta la legislación vigente que sea de aplicación.